



Lehiaren
Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA

ARABAKO GRADUATU SOZIALEN ELKARGO OFIZIALA

162-ZEH-2016 LEAren proiektua

Sumarioa:

I.- AURREKARIAK	2
II.- ARABAKO GRADUATU SOZIALEN ELKARGO OFIZIALA	5
III.- FROGATUTAKO EGITATEAK.....	6
1. Ordainsari Orientagarrien Baremoak finkatzearena.....	6
2. Arabako Elkargotik kanpoko kolegiatuen lan-egitea	9
3. Zerbitzu profesionalen publizitatea: Jakinarazpenak eta baimenak.....	10
4. Dokumentuak ordezkatzeko betekizunak: Idatzizko baimena eta ordainsaria.....	10
5.- Estatutuen aldaketa-proposamena.....	11
IV.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK.....	12
1.- Aplikatu beharreko araudia.....	12
A.- Ordainsari Orientagarrien Baremoak finkatzea.....	13
B.- Arabako Elkargotik kanpoko kolegiatuen lanbide-jarduera	14
C.- Zerbitzu profesionalen publizitatea	14
D.- Profesionalak ordezkatzeko betekizunak	15
2.- Tipikotasuna	15
3. Antijurizitatea	24
4.- Ardura.....	26
5.- Kalifikazioa	28
6.- Zehapenaren zenbatekoa ezartzea	29
V.- EBAZTEN DU	30

Osoko bilkura:

Maria Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, elkargokidea eta idazkaria

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

1. Lehiaren Euskal Kontseiluak (hemendik aurrera, LEK), 2017ko ekainaren 27ko bilkuran (adierazitakoek parte hartuta), ebazpen hau eman du 162-SAN-(2016) ARABAKO GRADUATU SOZIALEN ELKARGO OFIZIALA espedientean.



I.- AURREKARIAK

2. Lehiaren Euskal Agintaritzaren (LEA) erregistroan, 2015eko uztailaren 21ean, Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren ofizioa sartu zen. Ofizio horren bidez, Arabako Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialaren estatutuen 8.1 artikulua aldaketari buruzko txosten bat eskatu zuen. Elkargoak proposatu zuen aipatutako aldaketa. Bidalketa-ofizioarekin batera, Elkargoan indarrean dauden estatutuak erantsi zituen (1-42 bitarteko orriak).

Estatutuak aztertuta, LEAk ikusi zuen zenbait aginduk zinez urratzen dutela Lehiaren Defentsarako Legea (LDL)¹.

Elkargoak estatutuetan proposatutako aldaketak ez zion erreferentziarik egiten manu horiei.

3. 2015eko azaroaren 2an, sumatutako jokabidea deskribatzen zuen ohar labur bat bidali zion LEAk Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Lehiaren Zuzendaritzari (MLBN), dokumentazio lagungarri guztiarekin, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzeko Legearen 2.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri². LEAk adierazi zuen eskumena zuela jokabideak aztertzeko (1-4 bitarteko orriak).

2015eko azaroaren 11n, MLBNren ofizio bat sartu zen LEAren erregistroan. Ofizio horretan, jasotako proposamenari jarraituz, LEA ere eskuduntzat hartu zen aipatutako egitateak aztertzeko. Gainera, zehapen-espeditente bat hasi gero MLBNren Lehiaren Zuzendaritza alderdi interesdun gisa onartzeko eskatzen zuen (5-8 bitarteko orriak).

4. Arau-haustearen arrazoizko zantzuak zeudela ikusita, 2016ko urtarrilaren 11n Arabako Graduatu Sozialen Elkargo Ofiziala zehatzeko espeditentea hastea erabaki zen, Lehiaren Defentsarako Legearen (LDL) 1. artikulua urratu delakoan. Ebazpen horretan, prozeduraren instruktore bat ere izendatu zuen, LDLaren 49.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri. Espeditenteko alderdi

¹ 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehiaren Defentsakoa, 2007ko uztailaren 4ko BOEn (159. zk) argitaratua; honako hauek aldatu dute: 39/2010 Legea, abenduaren 22koa (BOE-A-2010-19703); 2/2011 Legea, martxoaren 4koa (BOE-A-2011-4117); eta 3/2013 Legea, ekainaren 4koa (BOE-A-2013-5940). Testu kontsolidatua <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2007-12946>.

² 1/2002 Legea, otsailaren 21ekoa, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenak koordinatzekoa (2002ko otsailaren 22ko BOE, 46. zk.).



interesatutzat hartu zituen, halaber, Arabako Graduatu Sozialen Elkargo Ofiziala eta MLBNren Lehiaketaren Zuzendaritza (43-46 bitarteko folioak).

2016ko urtarrilaren 19an jakinarazi zitzaion zehatzeko espedientea Elkargoari, eta 2016ko urtarrilaren 12an MLBNri (47-56 bitarteko orriak).

5. 2016ko urtarrilaren 25ean, sarrera eman zioten, LEAren erregistroan, Elkargoko Gobernu Batzarraren presidentearen idatzi bati; idatzi horretan, LEAk adierazitako gertaerak onartu zituen, eta estatutuak Zuzenbidearekin bat etorrarazteko asmoa agertu zuen. (57-59 bitarteko folioak).

6. 2016ko otsailaren 8an, sarrera eman zioten, LEAren erregistroan, Elkargoko Gobernu Batzarraren presidentearen idatzi bati; idatzi horretan, zigor-prozedura sorrarazi duten gertaerak onartu zituen, eta zehapen-espedientea artxibatze eskatu zuen, gertaerok gizartean eraginik izan ez dutelako eta juridikotasun aldetik ere ondoriorik izan ez dutelako, orobat elkargoak gertatuak onartu zituelako eta estatutuak Zuzenbidera egokitzeko asmoa agertu zuelako (60-63 bitarteko orriak).

2016ko maiatzaren 11n, sarrera eman zioten, LEAren erregistroan, Elkargoko presidentearen idatzi bati; idatzi horretan, erantsita zeuden Elkargoaren estatutuen moldaketarako tramiteak egin zitezzen Eusko Jaurlaritzara bidalitako dokumentuak (67-124 folioak).

2016ko maiatzaren 27an, sarrera eman zioten, LEAren erregistroan, Eusko Jaurlaritzan eskuduntza duen Zuzendaritzaren idatzi bati; idatzi horretan, LEAri eskatu zion igortzeko txosten bat Arabako Graduatu Sozialen Elkargoaren Estatutuen aldaketa egokitzeari buruzkoa, eta estatutuaren aldaketa horren kopia bat atxiki zuen.

7. 2016ko maiatzaren 30ean, elkargoari informazioa eskatzeko probidentzia eman zen, eta 2016ko ekainaren 3an jakinarazia izan zen (125-129 bitarteko orriak).

Eskutatuko informazioa LEAren Erregistroan sartu zen 2016ko ekainaren 14an (130-352 bitarteko orriak).

8. 2016ko azaroaren 15ean, LEAk txostena igorri zuen, Elkargoaren Estatutuen moldaketarena³.

³ LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA. Arabako Graduatu Sozialen Kolegio Prestuaren Estatutuei buruzko txostena. Hemen eskura: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/es_informes/10-20-



9. 2016ko abenduaren 30ean, LEAren artxiboan jasotako honako agiri hauek espedientera eransteko eginbidea gauzatu zen:

- LDEZk Arabako Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialari egindako eskakizunak, bere estatutuak lehiaren defentsarako araudira egokitu ditzan.
- Estatutuak aldatzeko proposamenaren zirriborroa, Arabako Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialak LDEZri 2009ko ekainaren 10ean igorria berrikusi eta baloratzeko.
- LDEZk zirriborro horri buruz 2009ko ekainaren 12an egindako txostena.
- LDEZk Arabako Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialari egindako informazio-eskakizuna.

10. 2017ko otsailaren 28an, Egitateak Zehazteko Plegua jaulki zen, eta interesdunei jakinarazteko igorri zuten; hala, hamabost egun balioduneko epea eman zen erantzuteko eta, hala egokituz gero, proba proposatzeko.

MLBNk Plegua igorri zen egun berean jaso zuen jakinarazpena, eta Elkargoak 2017ko martxoaren 7koa du hura jaso izanaren agiria. Epe hori igarorik, interesdunek ez diote erantzun Egitateak Zehazteko Pleguari, ez eta inolako proposamenik egin.

11. Instrukzio-aldia ixtea eta interesdunei jakinaraztea erabakitzen zuen probidentzia egin zen 2017ko apirilaren 7an. MLNBk 2017ko apirilaren 10ean jaso zuen jakinarazpena, eta Elkargoak, 2017ko apirilaren 19an.

12. Ebazpen-proposamena 2017ko maiatzaren 30ean eman zen (680-704 bitarteko folioak), interesdunei jakinarazita; 2017ko ekainaren 6an Elkargoari eta 2017ko otsailaren 30ean MLBNren ikerketa Zuzendaritzari. Hamabost egun balioduneko epea eman zen alegazioak egiteko zein froga eta jarduketa osagarriak proposatzeko LEKaren aurrean eta ikustaldia egiteko, halakorik balego.

Instruktoreak honako adierazpen hauek hartzeko proposatu zion LEKari:

- «a) Aitor dezatela, LDLren 1.1 artikuluan, debekatuta dagoen jokabide batez arauhauste bat izan dela; kasu honetan: Arabako Graduatu Sozialen Elkargoaren estatutuen manuak egokitzekoak daudela ordenamendu juridikoan izan diren aldaketetara eta estatutu horietan bertan lehiaren aurkakotzat berariaz jota dagoen funtzio bat dagoela, esan nahi baita: lanbideko ordainsari-baremo orientagarriak ezartzea (5 n artikulua), eta, horrekin batera, Arabako Graduatu Sozialen beste Elkargo batzuetako Kolegiatuen lanbide-jardueran lehia mugatzea (13. artikulua), zerbitzu profesionalen publizitatea mugatzea (15. m eta 72.3.j artikulua) eta beste kolegiatu bati manatutako gaien ezagutzan ordezkapena mugatzea (20. artikulua eta 72.3.l).



- b) Aitor dezatela arau-hauste bat izan dela LDLren 1.1 artikuluan debekatuta dagoen jarrera bat izateagatik, debekatua baitute Arabako graduatu sozialetako zerbitzu profesionalek tarifa minimoak edo orientagarriak onartzea eta aplikatzea.
- c) Arau-hausteetako bakoitza oso larritzat jo dezatela, 62.4.a artikuluan datorren bezala.
- d) Arau-hauste horien egile eta erantzule Arabako Graduatu Sozialen Elkargoa jo dezatela, zeinaren helbidea baita Vicente Goikoetxea kaleko 17 behea, Vitoria-Gasteiz (01008).
- e) LDLko 53. artikulua aipatzen dituen gainerako adierazpenak bere egin ditzala».

Halaber, Elkargolari bere kolegiatuen negozio-bolumenaren 2016ko ekitaldiko kopurua igortzeko ere eskatu zitzaion.

13. 2017ko ekainaren 19an, LEAren erregistroan Elkargoaren bi idatzi sartu ziren. Idatzi horretan, Ebazpen Proposamenari alegazioak aurkezten dizkio eta zigor-prozesura artxibatzeko eskatzen. Horrez gain, Elkargoak kolegiatuen negozio-bolumenaren kopururik ez duela erantzun zuen, eta korporazio horretara atxikitako kolegiatu sozialen datuak biltzeko eskumenik ere ez duela (737-766 bitarteko folioak).

14. 2017ko ekainaren 20an, instruktoreak hauexek igorri zizkion LEKari: administrazio-espeditentea, ebazpen-proposamena eta elkargoak aurkeztutako alegazioek ebazpen-proposamenean adierazitakoa ez dutela indargabetzen adierazten duen txostena.

II.- ARABAKO GRADUATU SOZIALEN ELKARGO OFIZIALA

15. Arabako Graduatu Sozialen Elkargoa zuzenbide publikoko korporazioa da, lanbide-izaera, berezko nortasun juridikoa eta bere xedeak bete ahal izateko erabateko gaitasuna dituena.

Elkargoak elkargoko estatutuak betetzen ditu, eta, horietan aurreikusiak ez dauden kontuetarako, Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialen Estatutuetara jotzen du⁴. Arabako lurraldea hartzen dute estatutu horiek.

173 kolegiatu ditu ,eta horietatik 55 jarduleak dira.

⁴ Kolegioaren Estatutuak onartzeko, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuak 2006ko uztailaren 12ko Agindua eman zuen, eta orain berriki onartu du horiek aldatzea Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko sailburuak, 2017ko martxoaren 8ko Aginduz. Aldaketa hori 2017ko maiatzaren 4an jarri zen indarrean, EHAA n argitaratu eta biharamunean (2017ko maiatzaren 3an, 82. zenbakian).



III.- FROGATUTAKO EGITATEAK

16. Elkargoaren Estatutuak onartzeko, Agindu bat eman zuen, 2006ko uztailaren 12an, Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantzako sailburuak⁵.

Zehapen-espeditentea abiatzeko orduan indarrean diren Elkargoaren Estatutuak aztertuta (2006ko Estatutuak) eta Elkargoak emandako informazioa eta zigorro-prozedura sorrarazi duten eta Elkargoak berak berretsi dituen ekintzak ikusita, honako egitate hauek ondorioztatzen dira⁶.

1. Ordainsari Orientagarrien Baremoak finkatzearena

17. 2006ko Estatutuek Elkargoari ematen zioten ordainsari orientagarrien baremoa finkatzeko zeregina:

«5.1 artikulua- Arabako Lan Harremanetako Graduatuaren Elkargoari dagokio, bere lurralde-eremuaren barruan, Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen 24. artikulua esleitzen dizkion eragitekoak.

2.- Eskumen orokorra alde batera utzi gabe, oinarrizko egiteko hauek ditu atxikita:

n) Lanbideko ordainsari-baremo orientagarriak ezartzea».

18. Elkargoak baditu Batzorde Etiko bat eta Ordainsari Profesionalak, eta haren funtzioen artean dago Gobernu Batzordeari jakinaraztea ordainsari orientagarriak eguneratu behar direla (63. artikulua).

Ordainsarien baremoak finkatzeko zeregin horretan, Elkargoko Gobernu Batzordeak dokumentu hau onartu zuen 2012ko ekainaren 19ko saioan: «Tarifa orientativa de honorarios profesionales de los graduados sociales en ejercicio libre del Excmo. e Ilmo. Colegio Oficial de Álava, a los exclusivos efectos de Tasación de Costas y Jura de Cuentas a partir del 1 de enero de 2012» (170-179 bitarteko orriak).

⁵ Arabako Graduatu Sozialen Kolegioaren Estatutuak, 2006ko uztailaren 12ko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburuaren Aginduarekin onartuak. EHAA, 219 zk., 2006ko azaroaren 16a.

⁶ Ezin da froga gisa erabili Ikerkuntza Zuzendaritzak 22 graduatari egindako inkesta, espeditentean datorrena (356-503 orriak). Planteatu diren gaien erantzuna monolitikoa izan da; ukatu egin dituzte edo ezezaguntzat hartu planteatutako gaiak, hala nola ordainsari-tarifak, publizitatea, benia... Deituak izan diren kolegiatuen artean, hor ziren Kolegioko Gobernu Batzordeko kide batzuk, 2012ko ekainaren 19an ordainsari-tarifa orientagarrien dokumentua onartu zutenak, eta, hala ere, horietako batek ere ez du adierazi Kolegioan ordainsari-tarifak zeudenik eta zertarako ziren. Bestalde, 2009 arte, Kolegioak ordainsari-tarifa orientagarriak izan ditu, eta denek ukatu dute, baita Gobernu Batzordeko kideek ere, ezagutzen dituztela lege onartuak egon arren eta kolegiatu-izaera izan arren.



Dokumentu horretan, Arabako graduatu sozialek ematen dituzten zerbitzuak zerrendatzen dira, eta bakoitzari tarifa orientagarri edo minimo bat ematen zaio (136-169 bitarteko orriak). 11 lan-kategoria daude, eta bakoitzak kobratu beharreko minimoak datoz ezarririk.

2. puntuak (harreman pribatuak), adibidez, honako kontzeptu hauen tarifak dakartza⁷:

2.- HARREMAN PRIBATUAK		
2.1. Soldaten agiriak eta atzerapenengatik egin beharreko kotizazio-dokumentuak ka kultatzea eta egitea	2.1.1 Enpresako	XX €
	2.1.2 Langileko	XX €
2.2 Lan-kontratuak eta oinarritzko kopiak egitea eta komunikatzea	2.2.1 Arruntak, praktiketan, behin-behinekoak; minimoa	XX €
	2.2.2 Klausula bereziekin; minimoa	XX €
	2.2.3 Prestakuntzak; minimoa	XX €
	2.2.4 Lanaldi partzialak, txandakakoak eta aldizkako lan-kontratu finkoak:	XX €
	2.2.5 Diruz lagunduak. Hobaridunak; minimoa	XX €
2.3 Izaera bereziko lan-egoeran daudenen lan-kontratuak idaztea eta erregistratzea, graduaren eta zailtasunaren arabera	Minimoa	XX €
2.4 Lan-egutegia eta -ordutegia, betetzea	Minimoa	XX €
2.5 Zereginen ziurtagiriak eta PFEZ atxikipenak.	2.5.1 Hiru langiletara arte	XX €
	2.5.2 Gainerakoa, kontratazio-l brea	XX €
2.6. Ahozko kontsultak		60,00 €
2.7. Idatzizko kontsultak	Minimoa	XX €
2.8. Gizarte Segurantzarekin lotutako txostenak eta aginduak:	Minimoa	XX €
2.9. Perituen txostenak	2.9.1. 6010.12 euro gehienez	% 5,00
	2.9.2. 6010.12 eurot k gora	% 3,00
	2.9.3. Edonola ere, honako minimo hau:	XX €
2.10. Enpresa bat eratzeak edo izateak dakartzan arazo laboralen edo aurreikuspenezkoen gaineko azterketak edo txosten idatziak	Minimoa	XX €
2.11. Lanaren antolamendu zientifikoaren gaineko azterketa, denboren neurketa. Oh ko ordainsaria azterketaren arabera izango da	Minimoa	XX €
2.12. Sai kapen profesionalaren gaineko azterketa edo txostena		XX €
2.12. Laneko segurtasun eta higienerari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko kontsulta	Minimoa	XX €
2.13. Azterketa eta aholkularitza lan-gatazka kolektiboetan, grebetan, ugazaben itxieretan, administrazio- eta sindikatu-prozeduretan, dokumentuen osaera, bileretara bertaratzeko, kudeaketak administrazio-erakundeetan, akordioak...	Minimoa	XX €
2.14. Hitzarmen kolekt boak idazteko eta osatzeko orduan ematen den aholkularitza —bezeroarekin egin beharreko bileretara eta partzialetara agertzea barne, baita eztabaida-batzordeetara ere—, eta behar diren zuzemen guztiak, eskala honen arabera sarituko dira	2.15.1 Hitzarmenak 100 langileri edo gutxiagori eragiten badie	XX €
	2.15.2 Gehiagori eragiten badie:	Kontratazio libreko langileak
	2.15.3 Hitzarmena enpresaz gaindiko eremuko den kasuetan	XX €
2.16 Batzordeetara agertzea aholkulari gisa, saio bakoitzeko		XX €
2.17 Sindikatu-hauteskundearen antolaketa eta azterketa	10 langilera arte	XX €
	10 langiletik gora, kontratazio librekoak	
2.17 Sozietateen azterketak eta agiriak egitea	Lanekoak edo Kooperatiboak	Minimoa
2.19 Estatutuak edo Araudiak aldatzea, berrikustea edo zuzentzea	Minimoa	XX €
2.20 Barne-funtzionamenduaren gaineko araudiak idaztea, langile kopurua zein den	Minimoa	XX €

⁷ Ebazpen honetan, kendu egin dira prezioak, haiei publizitaterik ez emateko.



2.21 Estatutuak idaztea, eta Sozietate Zibilak eratzeko aho kularitza		XX €
2.22 Pertsonalarentzako gutunak eta zigor-txostenak egitea eta idaztea, kaleratzeak barne		XX €
2.23 Diziiplina-espedienteen gaineko instrukzioa		minimoa
2.23 Epaiz kanpoko hautsi-mautsiak, eta azkena emateko agiriak idaztea (kaleratzeak...)	2.24.1 3.005,06 euro tara arte	% 10
	2.24.2 3.005,06 eurotik 6.010,12ra	% 8
	2.24.3 6.010,12 eurotik gora	% 5
	2.24.4 Dena dela ere, gutxienez	XX €
2.25 Edozein agiri motaren bisa		Minimoa
2.26 Laneko agiriak egiaztatzea, garrantzia eta gaiaren zenbatekoa zein diren		Minimoa
2.27 Giza baliabideak		2.27.1 Langileak hautatzea
2.28 Merkataritzako ordezkarien kontratua		Minimoa
2.29 Enpresak subrogatzea (langile kopurua eta zailtasuna ikusita)		Minimoa
3. HARREMANAK GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINZA OROKORRAREKIN		
3.1 Enpresen izen-emateak Gizarte Segurantzaren, lantokiaren irekiera-jakinazpena eta Bisita Liburuaren legeztapena		XX €
3.2 Enpresen izen-emateak Merkataritzako Ordezkarien Kolektiboan		XX €
3.3 Enpresen baja-emateak Gizarte Segurantzaren		XX €
3.4 Afiliazioa eta / edo langileen altak, bajak eta aldaketak Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean		XX €
3.5 Norbere Konturako Langileen Araubide Berezia	3.5.1 Afiliazioa eta alta edo baja 1	XX €
	3.5.2 Alta hitzarmen berezian	XX €
	3.5.3 Baja hitzarmen berezitik edo oinarriaren aldaketa-eskaerak	XX €
3.6 Afiliazioa edo alta Etxeko Langileetan		X €
3.7 Afiliazioa edo alta Merkataritza Ordezkarietan		XX €
3.8 Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorren kotizazio-zerrendak aztertzea eta egitea (TC 1 eta TC 2 ag.)	3.8.1 Enpresako	XX €
	3.8.2 Langileko	XX €
3.9 Gizarte Segurantzako langile- eta enpresa-kuotak xehatzea eta langilearen ordainketak prestatzea		XX €
3.10 Kotizazio-buletinak aztertzea eta egitea Merkataritzako ordezkarientzat		XX €
3.11 Etena dagoen langabezia-laguntzaren eta lanaldi-murrizketaren ordainketa-espediente delegatua, hileroko		XX €
3.12 Ordainketen zatikatzeen eta atzerapenen eskaerak aztertzea, egitea eta tramitatzea Gizarte Segurantzaren arloan, zenbatekoa zein den	gutxienez	XX €
3.13 Zatikatzeko eskaerak eta ordainketa geroratzeko aztertzea, egitea eta tramitatzea Norbere Konturako ari diren Langileen Erregimen Berezian, zenbatekoa zein den	gutxienez	XX €
3.14 Gizarte Segurantzaren kuotak itzultzeko espedienteak	3.14.1 Hasierako gutxienekoa	XX €
	3.14.2 Gehi, kuoten zenbatekoan oinarrituta,	% 10,00
3.15. Lan-istripuen edo lan-gaitasunaren txostenak egitea (...)		XX €
8. PROZESUKO JARDUKETAK		
PROZESU JUDIZIALAREN AURRETIK		
8.1 Aurretiko erreklamazioak, berraztertze-errekurtsoak, defentsarako txostenak edo helegiteak eta gainerako errekurtsoak Probintziako Erakundeetan, kontziliazio-eskaerak, graduaren eta zailtasunaren arabera	Minimoa	XX €
8.2 Gora jotzeko errekurtsoa		XX
8.2 Ohiko errekurtsoak eta gainerako Erakunde Zentraletan		XX
8.3 Ordezkapen-laguntza, Bitartekaritza, Arbitraje eta Adiskidetze Zerbitzuan (Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailekoa) egin beharreko kontziliazioetan,	gutxienez	XX €
PROZESU JUDIZIALA		
8.5 Laneko eta Gizarte Segurantzako salaketa idaztea, zenbatekoa zein den	gutxienez	XX €
8.6 Ordezkaritza-laguntza Lan-arloko Epaitegietan. (Kaleratzeen kasuetan, urteko sariaren gutzizkoa izango da zenbatekoa). (Bizisarien kasuan, horien urteko zenbatekoa). (Zenbatekoa zehaztugabea bada, minutuko zenbatuko da diskrezioz, gaiaren garrantzia nolako den).	8.6.1 Gaiaren zenbatekoaren gainean	% 10,00
	8.6.2 Dena dela ere, gutxienez	XX €



	gutxienez	Metatua	XX €
	3.000 euroraino	% 15	
	Hortik gora		
8.7 Laguntza Lan-arloko Epaitegietako edo beste instantzia batzuetako aginduetan	3.000,01 eurotik 6.000ra	% 10	
	6.000,01 eurotik 30.000ra	% 8	
	30.000,01 eurotik 90.000ra	% 6	
	90.000,01 eurotik gora	% 2	
8.8 Erregutze Errekurtsioa eta aurkaratzea Auzitegi Gorenetan, zenbatekoa zein den	gutxienez		XX €
8.9 Berraztertze errekurtsioa	Minimoa		XX €
8.10 Epaitegirako diren bestelako idatziak	Minimoa		XX €

Agiri hori kolegiatuen eskura dago Gasteizko epaitegietan eta Elkargoaren egoitzan (131. orria).

19. Elkargoak —Epaitegi eta Auzitegiek hala eskatuta— Graduatu Sozialen ordainsari gehiegizkoen berri ematen du, eta horrelakoetan Elkargoaren Ordainsari-tarifa Orientagarria aplikatu ohi du (170-179 bitarteko orriak)⁸.

2. Arabako Elkargotik kanpoko kolegiatuen lan-egitea

20. 2006ko Estatutuen 13. artikulua haxe ezartzen zuen lehen eta hirugarren ataletan:

«1. Arabako Lan Harremanetako Graduatuaren Elkargo Ofizialaren lurralde-eremuan profesionalki jardun ahal izango dira, bertara sartzeko beharrik gabe, lan-harremanetako graduatuaren beste elkargo batekoak izan eta Kontseilu Nagusiak edo Autonomikoak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen dituztenak, araz ezartzen den moduan (...).

3. Lan-harremanetako graduatuak elkargoak, Kontseilu Nagusiak edo Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanetako Graduatuaren Kontseiluak emakidarengatik kasu bakoitzerako ezartzen duen zenbatekoa ordainduko du. Zenbateko hori inoiz ez da izango elkargoko kideei eskuarki jasotzen dituzten eta elkargoko kuotak estaltzen ez dituzten zerbitzuengatik eskatzen zaiena baino handiagoa (...).

2006ko Estatutuen 85. artikulua haxe zekarren Elkargoaren errekurtsio arrunten artean,

«A. Sartzeagatik edo gaitzeagatik kobratzen direnak, ohiko eta aparteko kuotak, derramak ere barne».

⁸ 2012ko ekainaren 21eko txostena, Kolegioak Gasteizko Lan-arloko Epaitegietako 1. zenbakiari igorria (554/2011 Kaleratzeak/10/2012 Betearazte Pieza); 2012ko abenduaren 10eko txostena, Kolegioak Gasteizko 1. Instantziako Epaitegiari igorria (554/2012-M Ahozko Epaiaketa) eta 2015eko martxoaren 26ko txostena (Zibileko, Zigor-arloko, Administrazioarekiko Betearazpen Prozesaleko Zerbitzu Komunaren 398/2014-SDC-D Betearazte Pieza).



3. Zerbitzu profesionalen publizitatea: Jakinarazpenak eta baimenak

21. 2006ko Estatutuen 15. artikulua kolegiatuen betebeharrak ezartzen zuen:

«M) Elkargoari gutxienez hilabete lehenago jakinaraztea beraren zerbitzuekin egin nahi den publizitatea, Gobernu Batzordeak beharrezkoa den baimena eman dezan, (...)».

Gainera, 2006ko Estatutuen 72.3 artikulua zioenez, honako hiru arau-hauste astuna zen:

«j) Lan-harremanetako graduatu gisa ezagutarazteko publizitate-baliabideen erabileraren berri elkargoari emateko derrigortasuna ez betetzea, publizitateari buruz elkargoko organoek xedatzen dituzten arauak haustea, eta publizitatea Gobernu Batzordearen baimena eskuratu gabe egitea».

4. Dokumentuak ordezkatzeko betekizunak: Idatzizko baimena eta ordainsaria

22. 2006ko Estatutuen 20. artikulua honako hiru ezartzen zuen:

«1.- Lan-harremanetako graduatuak debekatuta daukate aurretik beste lankideren bati esleitu zaion edozein gaiz arduratzea, begiruneko arau gisa baimena idatziz eskuratu ez badute.

Lan-harremanetako graduatuak ezingo du bezero baten lanbide-gaiaren zuzendaritza hartu, bezeroak ez badu egiaztatzen lehen aholkuak ematen zizkion lan-harremanetako graduatuaren lanbide-sariak ordainduta dituela. Lanbide-sariak ordainduta ez baldin baditu, lan-harremanetako graduatu berriak Gobernu Batzordeari jakinaraziko dio, gaiaren ardura hartu eta hurrengo 24 orduetan.

Kasu honetan, Gobernu Batzordeak lan-harremanetako graduatuari ekintzak gauzatu ditzan baimena eman ahal izango dio.

Ordainsariak erreklamatzeko dituen lan-harremanetako graduatuak bere kabuz eta beren beregi eskatzen badu, Gobernu Batzordeak lan-harremanetako graduatu baimenduari adieraziko dio bezeroak elkargoko diruzaintzari "ad cautelam" ordaindu behar dion zenbatekoa; ohartaraziko zaio zenbateko hori ezartzen den epean ordaintzen ez badu, lan-harremanetako graduatuak eman dioten gaiaren lanbide-zuzendaritza utzi egin beharko duela. Horrek guztiak ez du alde batera utziko alderdiei eta lan-harremanetako graduatuei erreklamatzeko edo aurka egiteko dagokien ahalmena.

2. Aurreko arauak ez betetzeak diziplinako zuzengarria ekarriko du.

3. Baimena idatziz eskatu beharko da hartu izanaren adierazpenarekin. Baimenak eskabidea egin eta hurrengo hilaren 1ean izango du eragina, eta nolahi ere artikulua honetako 4. zenbakian aurreikusitako epeak errespetatuko ditu; beraz, baimena eraginkorra izatea nahi den hilaren 1a baino gutxienez 8 egun baliodun lehenago eskatu behar da.

Baimena ematea edo kentzea, halaber, idatziz egin beharko da.



Horretarako, baliozkotzat joko da hartu izanaren adierazpena duen gutuna, hartu izanaren adierazpena duen telegrama, hartu izanaren adierazpena duen burofaxa, eta bidali eta jaso dela adierazten duen beste edozein baliabide.

4.- Lanbide-baimena emateko edo kentzeko baimena bost egun baliodunekoa izango da, jaso izanaren egunetik aurrera.

Ezarritako epean erantzunik ematen ez bada, lanbide-baimena emandakotzat joko da.

5.- Gobernu Batzordeak ebatziko ditu artikulua honetan xedaturikoa aplikatzean sor daitezkeen arazo guztiak».

Era berean, 2006ko Estatutuen 72.3 artikulua arabera, honako hau arau-hauste astuna zen:

«l) Benia edo baimena hemen ezarrita bezala eskatzeko betebeharra ez betetzea».

5.- Estatutuen aldaketa-proposamena

23. 2009an, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) eskaera bat egin zion Kolegiatuari 2006ko Estatutuak moldatzeko eta lehiaren araudira egokitzeko⁹. Horretarako, sei hilabeteko epea eman zion (505-509 bitarteko orriak)¹⁰.

LDEZk bigarrenez aztertu zituen estatutuak, eta berriz eskatu zion honako hauek ezabatzeko:

- Elkargoak tarifa orientagarriak jartzeko funtzioa;
- zerbitzu profesionalen publizitateari muga jartzearena;
- Arabakoak ez diren lurraldeetako kolegiatuak jarduteko muga jartzearena; eta
- kolegiatu bati emana dioten gaiari buruz beste batek ulertu ahal izateko mugak jartzearena (510-584 bitarteko orriak)¹¹.

Elkargoak ez ditu moldatu Estatutuak zigor-prozedura hau abiatua zela jakin duen arte, nahiz eta bazuen adierazitako manuen zilegitasun-faltaren berri (67-124 orriak)¹².

⁹ LDEZk Arabako Graduatu Sozial Ofizialaren Kolegiatuari eginiko eskaerak, 2009ko maiatzaren 12 eta 25ekoak.

¹⁰ Eskaera hori ikusirik, Kolegiatuak 2009ko ekainaren 8an zera jakinarazi zion LDEZri, urtero onartzen zituen ordainsari orientagarriak ezabatu zituela, eta kolegioaren Estatutuen zirriborroa igorri zion, lehiaren defentsarako araudira eginiko egokitzapena erakusteko.

¹¹ 2009ko ekainaren 12an, LDEZk txosten bat igorri zion Kolegiatuari, Kolegioko Estatutuen zirriborroa zela eta. Horren bitartez estatutuan zetozen manuak ezabatzeko eskatzen zuen; besteren artean, zigor-prozedura hau abiarazi dutenak.

¹² Kolegioaren Gobernu Batzordeak 2009ko urriaren 28an egindako ohiko bileran, presidentek Batzordeari jakinarazi zion Kolegioari LDEZk eginiko eskakizuna estatutuak lehiaren



2015eko uztailean, Elkargoak Estatutuak moldatu nahi zituen aipaturiko puntu horiek aldatu gabe, nahiz eta jakin ez zela zilegi.

Elkargoak zigor-prozedura abiatu denean bakarrik moldatu ditu Estatutuak. 2016ko azaroaren 15ean, LEKek Estatutuen zirriborroaren berri eman zuen, eta ontzat jo zuen Elkargoaren Estatutuetatik ezabatu izana ordenamendu juridikoaren kontrakoak ziren manuak, zigor-prozedura hau abiarazi dutenak. Hala, Estatutu berriak onartu zituzten 2017ko martxoaren 8an Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren aginduz¹³.

IV.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Aplikatu beharreko araudia

24. Elkargoaren jarduna Elkargo Profesionalen Estatuko Legeak (EPL) eta Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko Euskal Legeak (EEL) zuzentzen dute¹⁴.

EPLren 6.1 artikulua kariaz, Elkargoa bera ere bere Estatutuek arautzen dute.

25. EPLk lehen ataleko 2. artikuluan, hauxe ezartzen du izaera orokorrarekin¹⁵:

“Lehia libreko erregimenean egingo dira elkargoko lanbideak, eta Lehiaren Aldeko Legeari eta Lehia Desleialaren Legeari lotuta egongo dira zerbitzuen eskaintzari eta

defentsarako araudira egokitu zitzan. Horren harira, adierazi zuen Kolegioak Estatutuak aldatuko zituela eskakizuneko puntuetan (337-339 orriak).

¹³ Agindua, 2017ko martxoaren 8koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuaren sailburuarena, Arabako Lan Harremanetako Graduatuaren Kolegio Ofizialaren estatutuen aldaketa onartzen duena. 2017ko maiatzaren 3ko EHAA, 82. zk.

¹⁴ Estatuko 2/1974 Legea, otsailaren 13koa, elkargo profesionaleri buruzkoa (BOE, 40. zk., 1974ko otsailaren 15ekoa). Honako hauek aldatuta: 5/2012 Legea, uztailearen 6koa (BOE-A-2012-9112); 25/2009 Legea, abenduaren 22koa (BOE-A-2009-20725); 6/2000 Errege Lege Dekretua, ekainaren 23koa (BOE-A-2000-11836); 6/1999 Errege Lege Dekretua, apirilaren 16koa (BOE-A-1999-8577); 7/1997 Legea, apirilaren 14koa (BOE-A-1997-7879); 5/1996 Errege Lege Dekretua, ekainaren 7koa (BOE-A-1996-13000), 74/1978, abenduaren 26koa (BOE-A-1979-697)<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1974-289> testu kontsolidatua.

Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea (1997ko abenduaren 11ko EHAA, 237. zk.). Apirilaren 23ko 7/2012 Legeak, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzekoak, aldatuta. 2012ko apirilaren 30eko EHAA, astelehena, 84. zenbakia.

¹⁵ Apirilaren 14ko 7/1997 Legearen 5. artikulua kariaz idatzia, lurra liberalizatzeko neurriak emateko eta elkargo profesionaleri buruzkoa bera. BOE, 90. zk., 1990eko apirilaren 15a.



horien prezioak ezartzeari dagokienez. Lanbide aplikagarri bakoitzaren eduki-arauko ordenamenduari buruzko legeria orokorrak eta espezifikoak eraenduta egongo dira aurrerantzean ere lanbide-jardunaren alderdiak”.

Araudi horrek berak —2009. urtetik— hauxe ezartzen du 4.2 artikuluan:

«Elkargoen akordio, erabaki eta gomendioek Lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legean zehazten diren mugak hartu beharko dituzte kontuan”.

A.- Ordainsari Orientagarrien Baremoak finkatzea

26. 2006. urtean —Elkargoaren aurreko Estatutuak onartu zirenean— indarrean zen araudiak berekin zekarren elkargoei zegozkien funtzioen artean ordainsariak ezartzearena, orientatzeko erabil zitezten (LELEko 5. artikulua, ñ hizkia, eta EELko 24. artikulua, e hizkia).

27. Barne-merkatuko zerbitzuen 2006ko zuzentarauak estatu kideen araudi osoa aldatzeko eskatu zuen, haien edukiak zerbitzu-jarduerak garatzea oztokatzen bazuen eta, ondorioz, aurretik aipatutako elkargo profesionalen araudia¹⁶.

Omnibus Legea 2009an jarri zen indarrean¹⁷. Lege horrek LELEko zenbait manu aldatu zituen: Besteak beste, EPLko 5. artikuluko ñ) letra kendu zuen (Omnibus Legearen 5. artikulua), eta 14. artikulua gehitu zuen. Horrek, hain zuzen ere, ordainsarien inguruan gomendiorik egitea debekatzen du:

«Elkargo profesionalak eta haien mendeko erakundeek ezin izango dute ordainsari profesionalak buruzko baremo orientagarriak, gomendiorik, jarraibiderik, ez araurik jaulki, laugarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoa izan ezik».

Aipatutako xedapen gehigarriak honako salbuespen hau ezartzen du **abokatuen kostuen tasazioari eta kontuen zinari** dagokienez soilik:

«Elkargoek **irizpide orientagarriak** prestatu ahal izango dituzte, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko.

Irizpide horiek baliatuko dira ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostak tasatu ahal izateko.

2012an, EAEko lurralde-esparruan, EPLko zenbait artikulua aldatuko zituen euskal legea onartu zen. Artikulu horiek dira, besteak beste, 24. artikuluko e)

¹⁶ 2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa. 2006ko abenduaren 27ko EBAOL, 376. zenbakia.

¹⁷ 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zerbitzu-jarduerak askatasunez eskuratu eta gauzatzeari buruzko Legea egokitzeko zenbait lege aldatzen dituena. 2009ko abenduaren 23ko BOE, 308. zenbakia. 2009ko abenduaren 27an jarri zen indarrean.



letra, aurrerantzean Estatuko legean idatzita dagoen moduan idatzita egongo zena.

B.- Arabako Elkargotik kanpoko kolegiatuen lanbide-jarduera

28. 2006. urtean, LELek hauxe zekarren 3. artikuluko bigarren atalean:

«Bi. Ezinbesteko araua da kolegiatu lanbideetan aritzeko bakoitza bere Elkargora joatea. Lanbide bat lurralde-elkargoetan antolatua badago, aski izango da horietako batera joatea; hura izango da helbide profesional bakarra edo nagusia, Estatu osoan jarduteko, eta helbidea beren lurraldean ez duten elkargoek ezingo dute exijitu gaikuntzarik elkargoa dagoen lekutik kanpo lan egiten duten kideei, ez eta elkargoko kuotak bere baitan ez dituen beste zerbitzu batzuegatik inolako beste ordainik ere, beren kideei normalean prestazioengatik eskatzen dizkieten ordain ekonomikoez aparte. Horrek ez du esan nahi Estatutu Orokorrek edo, hala denean, autonomikoetakoek ezin dietela exijitu bere elkargoa dagoen lekutik kanpo lan egiten duten kideei bera izena emanda dagoen Elkargoaz bestelako bati jakinaraztea beren lurraldean jardungo direla.

Elkargoak lurraldeka antolatuta daudenean, zerbitzu-prestaziorako bizilekuaren ezinbesteko betebeharra betetik, elkargoak dagokion lurraldean aritzeko gaituko du bakarrik».

Horren ondoren, manu hori moldatu zuten Omnibus Legearekin, eta, profesionala Elkargoaz kanpoko lurraldean jarduteari dagokionez, honela jarri zuten:

«Elkargoek elkargoarena ez den beste lurralderen batean aritzen diren profesionalei ezin izango diete exijitu ez komunikaziorik, ez gaikuntzarik, ez eta kontraprestazio ekonomikorik ere, ematen dituzten zerbitzuegatik elkargokideei eskatzen dizkietenak ez badira eta elkargoaren kuotatik kanpo ez badaude».

Antzera idatzia dago EEIko 39. artikuluko 4. atala¹⁸.

C.- Zerbitzu profesionalen publizitatea

29. 2006. urtean, LELek, hauxe ezarri zuen lehen atalean 2. artikuluan,

«Lehia libreko erregimenean egingo dira elkargoko lanbideak, eta lanbide aplikagarri bakoitzaren eduki-arauko ordenamenduari buruzko legeria orokorrari eta espezifikuari kalterik egin gabe, Lehiaren Aldeko Legeari eta Lehia Desleialaren Legeari lotuta egongo dira zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez».

Ondoren, Omnibus Legeak manu hori osatu zuen beste 5. atal bat gaineratuta profesionalen komunikazio komertzialei buruz:

¹⁸ Apirilaren 23ko 7/2012 Legearen 98. artikulua araberako idatzia, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa. 2012ko apirilaren 30eko EHAA, astelehena, 84. zenbakia.



«5. Edonola ere, lanbide bat bera bakar-bakarrik egitera behartzen duten baldintzak edo lanbide bi edo gehiago aldi berean egitekotan neurriak jartzen dituzten baldintzak soilik Legeak ezartzen dituen horiek izan daitezke.

Elkargoen estatutuetan edo Elkargoek onartzen dituzten kode deontologikoetan, berariazko aurreikuspenak jaso daitezke, elkargokideei eskatzeko komunikazio-kontuetan legearekin bat datorren jokabidea izan dezaten. Horren xedea da lanbidearen independentzia eta osotasuna babestea, bai eta lanbide-sekretua ere, psikologoaren kasuan»

D.- Profesionalak ordezkatzeko betekizunak

30. 2006. urtean, LELek honela ezarri zuen lehen atalean 2. artikuluan,

«Lehia libreko erregimenean egingo dira elkargoko lanbideak, eta lanbide aplikagarri bakoitzaren eduki-arauko ordenamenduari buruzko legeria orokorrari eta espezifikoiari kalterik egin gabe, Lehiaren Aldeko Legeari eta Lehia Desleialaren Legeari lotuta egongo dira zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez».

2.- Tipikotasuna

31. Lehia Defendatzeko Legearen 1. artikuluko 1. zenbakiak honako hau ezartzen du:

«Debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengoa bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki ondorengo akordio edo erabaki-motak egongo dira debekatuta:

a) Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea. (...)

d) Merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan, baldintza ezberdinak ezartzea baliokideak diren prestazioentzat, eta horrek lehiatzaile batzuei desabantailak eragitea beste batzuen aurrean».

32. LDLren 1.1 artikulua debekatu egiten ditu lehiaren jarrera murriztaileak kontsentsu edo multilateralitasun elementu bat badute; hortaz, hura aplikatzekotan, bi enpresak edo gehiagok jardun behar dute¹⁹.

¹⁹ Auzitegi Nazionalaren 2009ko uztailaren 10eko 3442/2009 Epaia (Administrazioarekiko Auzien Sala, Seigarren Sekzioa). JUR\2009\340897. ECLI: ES:AN:2009:3442. Ikusi Zuzenbidezko Oinarrietan Hirugarrena. Epai irmoa, 5301/2009 kasazio-helegitea atzera bota baitzuten Auzitegi Gorenaren Epaiarekin, Administrazioarekiko Auzien Sala, 3. Sekzioa, JB 2013/1680.

LEHIA DEFENDATZEKO AUZITEGIA. 2000ko martxoaren 22ko Ebazpena (r 397/1999 Espedientea, Canteras del Bierzo).



33. Justizia Auzitegiaren etengabeko jurisprudenziaren arabera, lehiaren defentsarako Zuzenbidearen arloan, enpresatzat hartzen da jarduera ekonomiko edo komertzialen bat duen edozein entitate, entitate horren estatutu juridikoa eta finantzatzeko modua edozein izanda ere²⁰. LDLk 4. xedapen gehigarrian dakar enpresa-kontzeptu hori²¹.

34. Lehiaren eskubidearen ikuspegitik, elkargo profesionalak enpresa-elkarteak dira, eta horien estatutuak, barne-arauak eta erabakiak akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak dira, LDLren 1. eta TFUEren 101. artikuluetan jasota datorrenaren arabera²².

«...aintzat hartu behar da Herbehereetako Abokatuen Elkargoa enpresa-elkarte bat dela Tratatuaren 1. ataleko 101. artikulua arabera, Samenwerkingsverordening 1993 araudia bere egin baitu. Horrelako araudi batek zera adierazten du, lanbide bateko kideek aukeratutako ordezkariak borondatea dutela jarduera ekonomiko horren esparruan portaera jakin bat hartzeko».

35. EPLren 2. artikulua honela ezartzen du: lehia libreko araubidean egongo dira elkargoko lanbideak, eta Lehiaren Aldeko Legeari eta Lehia Desleialaren Legeari lotuta egongo dira zerbitzuen eskaintzari eta horien prezioak ezartzeari dagokienez. Lanbide aplikagarri bakoitzaren eduki-arauko ordenamenduari buruzko legeria orokorrak eta espezifikoak eraenduta egongo dira aurrerantzean ere lanbide-jardunaren alderdia. Arau horrek berak ezartzen du elkargoen akordio, erabaki eta gomendioek LDLren mugak kontuan hartuko dituztela.

Auzitegi Goreneko jurisprudenziaren doktrinak dakarrenez, elkargo profesionalak osotara lehiaren araudira lotu behar dira²³,

Ildo horretan, nabarmentzekoa da Elkargo Profesionalei buruzko Legearen 2.4 artikulua, Zoruaren eta Elkargo Profesionalei buruzko Legearen 14ko 7/1997 Legearen idazpenean, honako hau xedatzen duela: "Elkargoek egiten dituzten eta transzendentzia ekonomikoa duten akordio, erabaki eta gomendioek uztailaren 17ko Lehia Babesteko 16/1989 Legearen 1. artikuluko mugak hartuko dituzte

²⁰ Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegia, 1991ko apirilaren 23a, C-41/90 Höfner eta Elser auzia. 21. zenbakia.

²¹ LDLren 4. Xedapen Gehigarriak dakarrenez, enpresa zera da, jarduera ekonomiko bat duen edozein pertsona edo entitate, entitate horren estatutu juridikoa eta finantzatzeko modua dena delakoa izanik ere.

²² Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiaren Epaia, 2002ko otsailaren 19koa. C-309/99 auzia. Wouters eta bestek planteatutako gai aurrejudiziala. 64. zenbakia.

²³ Auzitegi Gorenaren 2008ko azaroaren 4ko Epaia. Id. Cendoj: 28079130012008100025 eta Auzitegi Gorenaren 2009ko ekainaren 2ko Epaia. Id. Cendoj: 28079130032009100222. Auzitegi Gorenaren 2010eko apirilaren 26ko Epaia. ECLI: ES:TS:2010:2063.



kontuan; (...). Hala, ondoriozta daiteke elkargo profesionalak legez kontrako jarduera lehiakorren subjektu aktibo izan daitezkeela, nahiz eta zuzenbide publikoko korporaziotzat aitortu, horien jokabideek prestazioak libreki eskaintzeari eragiten diotenean; hori dela eta, ezin daiteke modu abstraktu eta hautakorrean zehaztu, beren izaera edo arau-edukiaren ondorioz, lehia babesteko legeriatik salbuetsita dagoen elkargo profesionalen funtzioei loturiko jokabiderik (...)».

36. Arabako graduatu sozialek, ordainsari baten truke, laguntza juridikoa eskaintzen dute lan-arloan eta gizarte-segurantzarenean, orobat defentsa ematen dute jurisdikzio-organo sozialetan. Horrenbestez, graduatu sozialek jarduera ekonomiko bat dute, eta enpresak eratzen dituzten LDLren 1. artikuluan datorren bezala. Profesional horiek, beren jardunerako, Elkargoan elkartzen dira obligazioz (indarrean diren Estatutuen 3. artikulua), eta Elkargoak enpresa-elkarte bat osatzen du, LDLren 1. artikuluan datorren bezala. Haren estatutuak, barne-araudiak eta erabakiak akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak dira, LDLren 1. artikulua aplikatuta, eta lehiaren araudia errespetatu behar dute.

37. Espedientean egiaztatuta gelditu da Elkargoak kostuen tasazioa eta kontuen zina egiteko ordainsari minimoen edo orientagarrien **tarifak** onartu eta ezarri dituela 2012ko urtarrilaren 1etik. Tarifa horiek Elkargoaren Gobernu Batzarrak onartu ditu, Batzar Nagusiak eskatuta, eta publikoak izan dira Elkargoaren egoitzan egon baitira kolegiatuen eskura, dela Gasteizko Epaitegietan dela egoitza sozialean.

Elkargoak tarifa horiek aplikatu ditu, Epaitegi eta Auzitegiek eskatuta bideratutako txostenetan, zertarako eta zigortutako profesionalen gehiegizko ordainsariak zehazteko.

Elkargoak ordainsari minimoak eta orientagarriak ezartzea eta aplikatzea debekatu egiten du LDLren 1.1.a artikulua.

Aurrekari ugariak direla eta, Elkargoak ordainsari orientagarrien baremoak ezartzea eta ordainsarien Tarifa minimoak edo orientagarriak aplikatzea debekatu egiten du LDLren 1.1.a artikulua, zeinen helburua izan baita lehia murriztea Arabako graduatu sozialen merkatuan²⁴.

²⁴ MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA: Ebazpena, 2015eko uztailaren 23koa. Espedientea: SACAN/31/2013 Las Palmasko Abokatuen Elkargoaren Lanbide Ordainsariak https://www.cnmc.es/sites/default/files/684466_8.pdf; Ebazpena, 2015eko azaroaren 19koa. Espedientea: SAMUR/DC/0003/13, Murtziako Finka Administratzaileen Elkargo Ofiziala https://www.cnmc.es/sites/default/files/771037_15.pdf; Ebazpena, 2016ko irailaren 15koa. Espedientea: SAMAD/09/2013 BIS AHAEO LANBIDE ORDAINSARIAK https://www.cnmc.es/sites/default/files/976828_16.pdf; Ebazpena, 2016ko abenduaren 22koa. Espedientea: S/DC/0560/15, Guadalajarako Abokatuen Elkargoa 2. Webgunea: https://www.cnmc.es/sites/default/files/1493570_1.pdf; 2015eko abenduaren 17ko Ebazpena, Espedientea: S/0299/10 Odontologoien eta Estomatologoien Kolegioen Kontseilua. Webgunea:



Tarifa minimoak edo orientagarriak eragin egiten dute profesionalen ordainsariak ezartzeko orduan, eta autonomia ez den portaera bat izateko aukera ematen dute; hala, lehiaren faktorerik esanguratsuenak desitxuratzen dira graduatu sozialek diharduten merkatuan. Auzitegi Nazionalaren 2016ko apirilaren 8ko Epaiak honela dio²⁵,

«Esaten dutenean jarrera horrek ez zuela lehiaren aurkako ondorioz ekarriko, nabarmendu beharra dago ondorio hori, lehiarako ondorio negatiboak sortzearena, ez dela zigorraren parte; batzorde horretarako, aski da jarrera ondorioak sortzeko modukoa izatea. Eta horixe da, inolako dudarik gabe, epaitzen den kasuan gertatzen dena, zeinetan, berriz diogun, tarifa minimoak finkatzeak profesionalen portaera uniformeak sustatzen baitu, lehia librerako printzipioaren kontra-contrakoa berori.

Errekurso hori atzera botatzeko, jo dezagun Justizia Auzitegiak 2009ko ekainaren 4an horri buruz emandako epairia (C-8/08 T-Mobile auzia). Epai horretan, xedeagatiko eta efektuagatiko arau-hausteen arteko bereizketaren jurisprudentzia-tratamenduaz ari da (27. eta 30. atalak), eta nabarmentzen du arau-haustea xedeagatik izango dela baldin eta jokabidea —bere izaera dela eta— kaltegarria bada lehia askearen jardura onerako, horri buruzko adibide klasikoak prezioak finkatzeko akordioak izanik, akordio horiek zuzenean eginak edo zeharka eginak izan. EBJAk honela dakar:

Xedeagatiko arau-hausteetan, hala nola prezioak finkatzearenean, ez da beharrezkoa administrazioak egiaztatzea merkatuan egin duen kaltea, zeren eta horrelako jarrerak ezinbestean eragiten dute. Horrelako jarrerak berez egiten diote kalte merkatuaren funtzionamenduari.

Esan bezala, tarifa horiek homogeneousitate-mekanismo bat dira Arabako graduatu sozialek ematen duten zerbitzuei aplikatzen zaien prezioan²⁶. Elkargoaren tarifa minimoek profesionalen portaera ez autonomo bat

https://www.cnmc.es/sites/default/files/800072_8.pdf. LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. *Zerbitzuen Zuzentzarauaren transposizioaren ondorengo Elkargo Profesionalei buruzko txostena*. Madril, 2012ko apirilaren 26a, LBNn, <http://www.cncompetencia.es/Inicio/Noticias/tabid/105/Default.aspx?Contentid=475051>. [pág. 71](#); LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA. *Arabako Graduatu Sozialen Kolegio Prestuaren Estatutuei buruzko txostena*. 10/20-PROM-2016 zenbakidun LEA Proiektua. Web-orria: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/adjuntos/10_20_INFORME_GRADUADOS_SOCIALES_ALAVA_web_eu.pdf; *Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena Bizkaiko Industria Ingeniariei Elkargo Ofizialaren estatutuei dagokienez*. [http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/informe_ingenieros_industriales_bizkaia_DEFINITIVO_\(15-6-2015\)_eu_eu.pdf](http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/informes/eu_informes/informe_ingenieros_industriales_bizkaia_DEFINITIVO_(15-6-2015)_eu_eu.pdf)

²⁵ Auzitegi Nazionalaren 140/2016 Epaiak (Administrazioarekiko Auzien Sala, 6. sekzioa), 2016ko apirilaren 8koa. Administrazioarekiko auzien 203/2013 helegitea. JUR/2016/97052. Ikusi Zuzenbidezko Oinarrietan 5. zenbakia.

²⁶ LBN, Guía para Asociaciones Empresariales, 2009ko abenduaren 10ekoa. Or. 10. Eskura, hemen: http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/guias_gidak/es_guias/adjuntos/guia_asociaciones.pdf.



sorrarazten dute, eta desitxuratu egiten dute lehiaren faktorerik esanguratsuenetako bat graduatu sozialen merkatuan²⁷.

Horren harira jardun dira hala Europako jurisprudentzia nola Espainiakoa. Jurisprudentziak dioenez, lehia mugatzeko era jakin batzuk, beren xedeagatik, kaltegarritzat har daitezke beren izaera dela-eta lehiaren ohiko jokoaren jardun onerako.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) C-226/11 auzian emandako epaian hauxe dio²⁸:

«Justizia Auzitegiak xedatu du «xedeagatiko arau-haste»en eta «efektuagatiko arau-hauste»en arteko bereizketa dela enpresen arteko kolusio era jakin batzuk, izaeragatik, lehiaren ohiko jokoaren jardura onerako kaltegarritzat har daitezkeela».

Berriki, gainera, EBJAk 2016ko urtarrilaren 20an C-373/14 auzian emandako epaian²⁹:

«(...) debekuaren pean erortzeko (...) erabaki batek «xede edo efektutzat» eduki behar du merkatu erkidearen barruan lehiaren jokia eragozteko, mugatzea edo faltsutzea. (...) baldintza horren ordeko izaeragatik, «edo» juntagailuak adierazten duen moduan, erabakiaren xedea bera hartu behar da kontuan lehenik (...). Hala bada, erabaki batek lehiari izandako eraginak aztertu beharrik ez dago egiaztatuta badago haren xedea lehiaren aurkakoa dela».

Auzitegi Gorenak (AG) bat egin du Europako jurisprudentziarekin, eta hura aipatu du 2015eko abenduaren 9ko epaian³⁰:

«(...) «xedeagatiko arau-haustea» dagoela jotzeko zantzu nahikorik ez dagoenean baino ez da eskatzen erabaki baten lehiaren aurkako efektu zehatzak egiaztatzea. Dena delako erabaki horrek lehiaren aurkako xedea duela egiaztatuta gelditzen denean, ordea, ez dira egiaztatu behar erabaki horrek lehiaren gainean eta, ondorioz, aplikatzen den merkatuaren gainean zehazki zer eragin kaltegarri dituen. Halakoetan aski da azaltzea erabaki horrek lehiaren jokia barne-merkatuan eragotzi, mugatu edo faltsutu ahal duela».

²⁷ LBN. Espediente Ebazpena S/0413/12 Peritaje eta balorazio judizialen enpresa-elkartea. Zuzenbidezko Oinarrietan hirugarrena.

VALENTZIAKO ERKIDEGOKO LEHIAREN DEFENTSARAKO BATZORDEA. Espediente Ebazpena SAN OF 12/2013, Valentziako Graduatu Sozialen Kolegioa. Zuzenbidezko Oinarrietan hogeita hirugarrena.

²⁸ Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Epaia (Bigarren Aretoa), 2012ko abenduaren 13a, C-226/11 Auzia. ECLI:EU:C:2012:795.

²⁹ Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren Epaia, 2016ko urtarrilaren 20a, C-373/14 Auzia. ECLI:EU:C:2016:26.

³⁰ Auzitegi Gorenaren 5310/2015 Epaia, Administrazioarekiko Auzietako Sala, 2015eko martxoaren 9ko, 1991/2014 zenbakiko kasazio-errekurtsoa. ECLI: ES:TS:2015:5310.



Epaitegien eskariz kostuak tasatzeari buruz Elkargoak egindako txostenen analititik, ondorioztatzen da Elkargoak tarifak aplikatu dituela zehazteko ea ordainsari profesionalak gehiegizkoak diren edo ez (170-179 bitarteko orriak)³¹. Elkargoaren tarifek balio badute erreferentzia gisa ordainsari profesionalen izaera gehiegizkoa edo egokia zehazteko, graduatu sozialen erreferente dira beren ordainsariak finkatzeko, eta, hala, lehiak prezioak finkatzeko orduan sorrarazten duen ziurgabetasuna kentzen da.

Ebazpenaren Proposamenak dakarren bezala, Auzitegiek kontsulta egiten badiote Elkargoari ordainsari baten izaerari buruz, analisi bat egin beharra du perituen bidez eta ez eztabaidan dauden xedapenen bidez, eta kasu konkretuan oinarritu behar du, zerbitzuen erabiltzaileek ondorio negatiborik izan ez dezaten. Kontuan izan Auzitegi Gorenak kostuen tasazioan datorren ordainsariari buruzko kontuak eskatzen dabilela³²:

«2.- Beste aldi batzuetan esana dugun bezala (besteren artean, 2011ko ekainaren 21eko erabakian, 1192/2008 errekurtsioan, eta 2011ko uztailaren 12ko 1948/2008 errekurtsioan), tasazioan datorren ordainsariak neurritzkoa eta arrazoizkoa izan behar du lanbidearen parametroetan, ez bakarrik zenbatekoaren irizpideak erabiliz kalkulatu, baizik eta baita egokitua ere auzian izaten ari diren baldintzetara, gaiaren konplexutasun gradura, prozesuko posizio berean beste profesional batzuek egiten dituzten esku-hartzeetara eta kostuen tasazioan sartzeko haiek aurkeztutako ordainsarietara».

Analizatzen den gertaeraren kasuak ez du lege-estaldurarik; izan ere, debekuaren salbuespen bakarra LELen laugarren Xedapen gehigarrian dator, EELn ere badatorrena. Salbuespen horrek «irizpide orientagarriak» ezartzeari egiten dio erreferentzia, eta behin ere ez baremoei. Gainera, abokatuen kostuen tasazioari eta kontuen zinari bakarrik eragiten dio; hortaz, ez du kasu honetan analizatzen den jarrera babesten.

³¹ ABC graduatu sozialen ordainsariak zigortzearen kasuan, Kolegioak jakinarazten dio dagokion Epaitegiari Kolegioaren Ordainsari Orientagarrien Tarifako 8.7 Araua aplikatu dutela. CRFren ordainsariak zigortzearen kasuan, Kolegioak jakinarazten dio dagokion Epaitegiari ordainsari helbideratuak ez direla gehiegizkoak Kolegioaren usadio eta ohituren arabera, izan ere lanaren funtzioaren eta zenbatekoaren arabera kalkulatzeko baitira. Horrez gain, dioenez, ordainsari horiek apalagoak dira Kolegioaren kostuak tasatzeko eta kontuen zina egiteko tarifa orientagarrietan ezarriak dituenak baino. Azkenik, SPD graduatu sozialaren ordainsariei dagokienez, Kolegioak jakinarazten dio dagokion Epaitegiari helbideratutako ordainsariak ez direla gehiegizkoak Kolegioaren usadio eta ohituren arabera, zeren eta lanaren funtzioaren eta gaiaren arloaren arabera kalkulatzeko baitira. Gainera, dioenez, ordainsari horiek zertxobait apalagoak dira Kolegioaren kostuak tasatzeko eta kontuen zina egiteko tarifa orientagarrietan ezarriak dituenak baino.

³² Auzitegi Gorenen 2017ko martxoaren 15eko erabakia. Arlo zibileko salako 1. sekzioa. ECLI: ES:TS:2017:2259^a.



38. Era berean, espedientea tramitatzearekin, egiaztatuta gelditu da Elkargoko Estatutuek aurreikusten dituztela mekanismo juridikoak (Kontseilu Nagusiak edo Autonomikoak ezarritako baldintzak) edo ekonomikoak **lanbidearen jarduna baldintzatzeko Arabako kolegiatuan diharduten eta beste lurralde batzuetakoak diren kolegiatuei** (13. artikulua). Horrek LELen bigarren ataleko 3. artikuluan datorrena urratzen du, zeinak eragozten baitu elkargoek elkargoarena ez den beste lurralderen batean aritzen diren profesionalen exijitza ez komunikaziorik, ez gaikuntzarik, ez eta kontraprestazio ekonomikorik ere, ematen dituzten zerbitzuengatik bere elkargokideei eskatu ohi dizkietenak ez badira eta elkargoaren kuotatik kanpo ez badaude.

Arabian beste Graduatu Sozialen Elkargoetako kolegiatuek beren lanbidean aritu behar duten orduan, Elkargoaren estatutuetan dauden baldintza juridiko eta ekonomikoak bete behar izatea ez da zilegi lehia librerako, debekatua baitago LDLren 1.1.d artikuluan.

39. Kolegiatuek beren zerbitzu profesionalaren publizitatea egiteko jarduerak baldintzatu dituzte Elkargoak. Estatutuko arauan datorrenez, edozein publizitate-jardueraren berri eman beharra dago, eta ondoren, baimena jaso behar da (15.m artikulua). Gainera, arau-hauste astuntzat du zerbitzu profesionalen publizitate jardueren berri ez ematea (72.3 j artikulua).

LELEk ez du mugarik ezartzen profesionalen publizitate jardueretan, soilik ezartzen du Elkargoak esku hartu behar duela bakarrik legezkoa dela seinalatzeko.

Publizitatearen helburu nagusia da zerbitzuen eskarian eragitea, bezeroak handitzeko bide gisa, eta, horrekin batean, zerbitzu horiek ematen dituenaren diru-sarrerak handitzeko. Merkatuan lehia sorrarazteko jardura da. Hala ere, Elkargoak lehia baldintzatu die zerbitzu-emakari profesionalen, eragotzi egiten baitu horien eskaintza merkatuan, eta, horrekin, graduatu sozialak elkarrekin lehiatzea.

Estatutuen 15 m artikuluan ezarritako baldintzak, profesionalak bere zerbitzuen publizitatea egin dezaten bete beharrekoak, debekatuta daude LDLren 1.1.a artikuluan. Kontsiderazio hori elkargoaren estatutuei ere badagokie, horko 72.3 j artikulua ezartzen baitu baldintza horiek ez betetzeak zigor-ondorioak dituela.

40. Elkargoko Estatutuek debekatu egiten dute kolegiatu batek besteren gaia eramatea horren **benia** idatzirik ez baldin badu. Bezero baten gaiaren zuzendaritza ere ezingo du hartu, bezeroak ez badu egiaztatzen lehenago aholkuak ematen zizkion lan-harremanetako graduatuaren lanbide-sariak ordainduta dituela (20. artikulua). Hura ez betetzeak diziplina-zuzenketa ekarriko du (72.3 artikulua).



Jarrera hori traba bat da Arabako graduatu sozialen merkatuko lehiari, eta muga bat ezartzen du lanbidean. Eta horrek LELen 2. artikulua urratzen du³³.

Estatutuen 20. artikulua, kolegiatu batek beste baten gaia eraman dezan baldintzak ezartzen dituena, debekatua dago LDLren 1.1.a artikuluan. Gainera, baldintza horrek mekanismo bat dakar ondorio horretara behartzeko, hura ez betetzea zigortzekoa dela baitator elkargoetako estatutuen 72.3.l artikuluan.

41. Lehen esan bezala, Elkargoak bere Estatutueta ordenamendu juridikoaren kontrakoak diren arauak dakartza, nahiz eta LDEZk abisatua zion Elkargoari arau horiek ez zutela legezatasunik, eta epe bat emana zion beren borondatez ezabatzeko.

Lehiaren Euskal Kontseiluak zehapen-espeditentea jakinarazi ondoren baino ez zituen hasi elkargoak manua benetan indargabetzeko izapideak.

42. Elkargoak egiaztatutzat jo ditu gertaera horiek, nahiz eta bere defentsan arrazoitu duen lehiaren kontraktzat egozten zaion jarrerak ez duela behar beste tipikotasun. Elkargoaren ustez, Estatutueta lehiaren araudiaren kontra dauden manuak bertan behera gelditu dira Omnibus Legea indarrean jarztearekin, eta ez dute ondoriorik ekarri. Atzerapen bat besterik ez da izan estatutuak indarrean den legedira egokitzearena.

43. LEKek atzera bota behar du Elkargoaren errugabetze-helegitea, hots, Omnibus Legeak **bertan behera** utziko lituzkeen manuak estatutuan mantentzearen jarrera LDLren 1. artikuluko tipikotasun-faltagatik izan dela dioena.

Elkargoak Estatutuak legezatasunera egokitu behar ditu.

Elkargoak bere elkargoetako Estatutuak betetzen ditu (indarrean diren Estatutuen 3. artikulua), eta 2009ko abendutik eduki ditu orain gutxi arte LDLren kontrakoak diren manuak, legezatasun-faltaren jakitun izanik ere.

Ez dago egiaztaturik Elkargoak araua aldatzeko kontzientziarik izan duenik, eta lehia-agintariak behin eta berriz izan dituen jarduerak zehapen-prozedura hau abiatu den arte ere ez dira izan Elkargoaren Estatutueta LDLren kontrako

³³ LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA (LBN). 2010eko maiatzaren 20ko ebazpena, S/0127/09 zehapen-espeditentean, Prokuradoreak. Bigarren Zuzenbideko Oinarrian, zera dator, «LBNren iritzi, aurreikuspen horrek (...) muga argia ezartzen dio lehiari, eta ez du inolako zuribiderik (...); hortaz, kendu egin behar litzateke. Gogorarazi beharra dago, gai horren harira, Elkargo Profesionalen Legearen 1997ko erreformak argi eta garbi kendu zuela profesionalen trukerako edo ordeztetarako zuten aukera. Benia baimen bat zen, profesional lehenak profesional bigarrenari ematen ziona, bezeroak lehen bigarrenarengatik ordezkatzeko erabakitzen zuenean; kontua zen baimen hori askotan egiazko muga bat zela, hain zuzen, eta horrelako konpentsazio ekonomikoak ekartzen zituela.



manuak aldatzeko kausa. Bestaldera, Elkargoak Estatutueta beste manu bat moldatu du; Elkargoan sartzeari buruzkoa, alegia (8.1 artikulua). Gainera, Elkargoak estatutu-eskumena izanda legez kanpoko ordainsari orientagarriak onartzeko (15.n artikulua), 2012ko ekainaren 19an onartu zuen tarifa orientagarrien agiria.

Orain berriki, MLBNk Madrilgo Abokatuen Elkargoaren ORDAINSARI PROFESIONALEN Ebazpenean honako hau adierazi du³⁴,

(«...» agerikoa da Omnibus Legea 2009ko abenduan indarrean jarri zenez geroztik, horietako manu bat, 4. artikuluko p) letra, arau horren eta LDLren aurkakoa dela, Madrilgo Abokatuen Elkargoa haren mende egonik LELn xedatutakoaren arabera. Hau da, sei urtez baino gehiagoz Madrilgo Abokatuen Elkargoak lehiaren defentsarako araudiaren aurkako manua eduki zuen estatutueta, eta ez zuen jarduketarik egin hura formalki indargabetzeko. (...) Era berean, instrukzio-organoak Madrilgo Abokatuen Elkargoaren aldetik arretarik ez egotea hartu behar du kontuan ebazpen hau zaintzeko lanetan».

44. Elkargoak dio LDLren kontrakoak diren manuak bere orduan ez aldatu izanak ez duela **ondoriorik ekarri**, Elkargoak ez dituelako aplikatu. Esan bezala, LDLren 1.1 artikuluan, debekatuak daude lehia mugatzen duten jarrerak. Ez dago dudarik Elkargoak indarrean dituen estatutueta lehia mugatzen duten manuak ez aldatuta lehia mugatzen dela, ebazpen honen 37. paragrafotik 41.era azaldu dugun bezala, eta LDLren 1. artikulua urratzen dela.

Horregatik, alegazio hau baztertu egin behar da.

Arrazoi berregatik, atzera bota beharra dago Elkargoaren beste alegazioa ere, indarrean den legedira estatutuak egokitzearena atzerapen bat izan dela dioena, non 6 urtez eduki baititu LDLren kontrako manuak Elkargoko Estatutueta.

45. Horregatik guztiagatik, ondorioztatu behar da lehia librearen kontrako jarrerak direla (LDLren 1.1 artikuluan debekatuak) Estatutueta ordainsari orientagarrien baremoak ezartzeko funtzioari eutsi izana (5. n artikulua) eta Araban beste lurralde batzuetako kolegiatuen lanbidean (13. artikulua), zerbitzuen publizitate jardueran (15.m artikulua eta 72.3.j) eta gaiak beste batek eramatearen kontuan (20. artikulua eta 72.3.l) mugak jarri izana.

³⁴ LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA. 2017ko apirilaren 11ko Ebazpena, LEAren proiektuzenbakia: 146 -SAN- (2015). Bizkaiko Psikologia Elkargoa. Eskura hemen, http://www.competencia.euskadi.eus/contenidos/informacion/resoluciones/es_resoluci/djuntos/146_resolucion_COLEGIO_PSICOLOGIA_BIZKAIA_web_es.pdf.

MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA: Ebazpena, 2016ko irailaren 15ekoa. Espediente: SAMAD 09/2013 MADRILGO ABOKATUEN ELKARGOAREN LANBIDE-ORDAINSARIAK https://www.cnmc.es/sites/default/files/976823_17.pdf



Era berean, ordainsarien tarifak onartzea, ezartzea eta aplikatzea kostuen tasazioan eta kontuen zinean lehia librearen kontrako jarrera bat da, LDLren 1.1 artikuluan debekatua dagoena.

3. Antijurizitatea

46. Bestalde, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 4.2. artikulua honako hau xedatzen du: «arauan aipatzen diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, baldin eta lege-babesik gabe burutzen badira». Beraz, lege-mailako arau batek argi baimentzen ez badu behintzat, aurrekarietan deskribatutako jarduerak lehia-zuzenbidearen mende daude.

Auzitegi Gorenak 2015eko martxoaren 9ko Epaian honako hau adierazi zuen³⁵:

«Azken batez, 15/2007 Legearen 4.1. artikulua asmoa ez da Lehiaren Zuzenbidearen aplikazio-esparrutik kanpo uztea arau baten babesean egiten den edozein jardura, baizik eta, soilik, Lege batek xede zehatz batekin (berariaz edo modu inplizituan) 15/2007 Legearen 1. artikuluko debekuen aplikazio-esparrutik kanpo uzten dituen jarduerak».

Hau da, elkargoak lehiaren aurkako bere jokabidea babes lezake soilik xedetzat lehiaren defentsarako arauak bazter daitezela baimentzea duen lege-mailako arau baten barruan.

47. Elkargoaren Estatutuetan LDLren kontrakoak diren manuak mantentzearen harira, Elkargoak berak dakien eta alegazioetan erakusten duen bezala, LEL eta EEL lehiari trabak kentzen joan dira kolegiatuen lanbide-jardueraren baldintza juridiko eta ekonomikoetan, salbuespenik inola ere ezarri gabe elkargo profesionalen kasuan³⁶.

³⁵ Auzitegi Gorenaren 2015eko martxoaren 9ko Epaia, Administrazioarekiko Auzietako Sala. 294/2013 zenbakiko kasazio-errekurtsoa. ECLI: ES:TS:2015:800.

³⁶ Ordainsari profesionalen dagokienez, debekatu egin die elkargo profesionalen edozein motatako baremo orientagarriak egitea bai eta bestelako orientazioak, gomendioak, jarraibideak edo arauak ezartzea ordainsari profesionalen inguruan; hortaz, profesionalak libreki erabaki behar dute zenbat kobratu emandako zerbitzuengatik (LELen 14. artikulua). Bestalde, kolegiatuaren Kolegiotik kanpoko lurralde batean lanbidean jardutearenaz denaz bezainbatean, LELek eta PEELek ezabatu egiten dituzte traba, baldintzatzaile, habilitazio eta komunikazio mota guztiak (LEL, 3. artikulua). Gainera, zerbitzu profesionalen publizitateari dagokionez, Kolegioak soilik eska dezake komunikazio komertzialak legearen araberakoak izatea, eta ezin du mugarik ezarri komunikazio horietan (LEL, 2.5 artikulua). Azkenik, profesional bati esleitutako gaiak beste bati eman eta gai horren ezagutza izateko orduan, lanbidea lehia librearen erregimenean gauzatu behar da, eta Kolegioak ordezkapen horretan baldintzak ezartzea lanbidearen lehia librearen kontrakoa da (LEL, 2. artikulua).



48. Elkargoak dioenez, legeak babesten du kostuen tasaziorako eta kontuen zinerako ordainsari orientagarrien tarifak onartu, ezarri eta aplikatzeko orduan; zehazki, LDLren 4. Xedapen Gehigarrian eta Lan-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legearen (LJAL) 269. artikulua; horiek abokatuen ordainsarien erregimena graduatu sozialetara zabaltzen dute, kostuen tasazioa eta kontuen zina egin dezaten³⁷. Era berean, esan du Elkargoaren helburua Epaitegiei eta Auzitegiei egoki erantzutea izan dela hala eskatu izan zaienean kostuak tasatzeko prozedura batean. Orobat dio Elkargoak ez diela egin kolegiatuei tarifen publizitaterik, are eta gutxiago exijitu duela haren aplikaziorik.

Esan bezala, lege-mailako arau batek tarifa orientagarriak argi baimentzen ez baditu behintzat, lehia-zuzenbidearen mende daude. Elkargoak ezin du, arau baten babesean, lehiaren aurka egin, horretarako lege-mailako arau batek egon behar baitu, lehia defendatzeko arauetatik kanpo uzteko xedearekin.

LELaren 14. artikulua xedatzen du profesionalen ordainsariak aske ezarri beharrekoak direla eta elkargoek ez dutela zerikusirik izan behar halakoak zehazteko eginkizunarekin; debekatuta dago, orobat, elkargoek ordainsariei buruzko era guztietako orientabiderik ematea.

LELak berak egiten duen salbuespen bakarra irizpide orientagarriak prestatzeari buruzkoa da, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko soilik. Hau da, Abokatuen Elkargoak eta Elkargo guztiek debekatua dute emandako zerbitzuen baremoak ezartzea.

Elkargoak Ordainsarien Tarifa minimoak edo orientagarriak onartu ditu, nahiz eta kostuen tasaziorako eta kontuen zinerako izan, eta horietan prezio finkoak eta minimoak ezartzen ditu graduatu sozialek beren bezeroei ematen dizkieten zerbitzuetarako eta ez irizpide orientagarriak. Tarifa horiek debekatu egiten ditu LELek, eta urratu egiten dute LDLren 1.1 artikulua.

Elkargoak dio LJALk maila berean jartzen dituela graduatu sozialen ordainsariak eta abokatuenak, kostuen tasazioetan eta kontuen zinetan. Elkargoak dio aipatutako Legeak arau berak zabaldu dituela abokatuen ordainsariei aplikagarriak zaizkien kontuen zinean eta kostuen tasazioan, eta soilik eskatutako txostenak jaulkitzeko erabili behar direla.

49. Ez dago alegazio hori aintzat hartzerik, zeren eta ebazpen honetan behin eta berriz esan dugun bezala, elkargo profesionalek debekatua dute legez ordainsari orientagarrien baremoak ezartzea eta kasu honetan Elkargoak onartu, ezarri eta aplikatu egin ditu ordainsarien tarifa minimoak eta

³⁷ 36/2011 Legea, urriaren 10ekoa, jurisdikzio soziala arautzen duena. BOE 245. zk., 2011ko urriaren 11koa. Testu kontsolidatua hemen, <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2011-15936>.



orientagarriak, graduatu sozialek ematen duten zerbitzu profesional bakoitzeko. Gainera, auzitan diren manuen analitistik ez dago Elkargoak emandako ondorioetara ailegatzerik. LJALren 269. artikulua soilik esaten du abokatuek (...), prokuradoreek eta elkargoetako graduatu sozialek exekuzioan irabazitako ordainsariak edo eskubideak sar daitezkeela kostuen tasazioan.

Manu horrek ez du aldatzen LELen 4. xedapen gehigarria, zeinak soilik baimena ematen baitio Abokatuen Elkargoari irizpideak ezartzeko kostuen tasazioan eta kontuen zinean. Inola ere ez dago baremoak ezartzeko babesik ondorioztatzerik, baina are eta gutxiago legoke prezio minimoak ezartzeko (betiere justifikaziorik gabeak eta lehiaren kontrakoak) Elkargoan aplikatu diren bezala.

Elkargoak kostuen tasazio-prozedura batera deitzen zaionean Epaitegiei eta Auzitegiei egoki erantzuteko duen asmoak ez du inondik ere zurriz haiek erabiltzen dituzten tarifak, baremoak eta prezio minimoak ezartzearena. Hain zuzen, gizartean eragiten duten kalteagatik hemen analizatzen direnen gisako tauletatik ihes egiteko egina dago Elkargoaren peritu-errekurtsoa.

50. Elkargoak dio ez diela bere kolegiatuei egin tarifen publizitaterik.

Tarifa minimoak edo orientagarriak Elkargoaren Gobernu Batzarrak onartu ditu Batzar Nagusiak berriaz eskatuta, eta onartu ondoren publiko egin dira, kolegiatuen eta edozein interesdunen eskura egon baitira Elkargoaren egoitzan, dela egoitza sozialean dela Epaitegietan; hortaz, alegazio hori atzera bota beharra dago.

4.- Ardura

51. LDLko 63.1 artikulua xedatzen du zehapenak ezarri ahal izango zaizkiela LDLn ezarritakoa nahita edo zabarkeriaz betetzen ez duten operadoreei.

Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentziarekin bat etorriz —Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak ere jasotzen du 2011ko azaroaren 14ko 761/2011 epaian eta 2012ko otsailaren 6ko 73/2012 epaian—, administrazioaren erantzukizunaren esparruan ez da nahikoa jokabide tipikoa eta antijuridikoa izatea, horrez gain beharrezkoa baita erruduna izatea. Erruduntasuna elementu saihestezina da zehapen-eskubidearen aplikazioari buruz ari garenean, eta beharrezkoa da gauzatutako jarduketa-espeditentean sartuta daudenei egozte, bai dolu gisa bai zuhertasun falta gisa; hau da, subjektuak nahita jardutea edo kontziente izatea —eskatzen zitzaien diligentsia alde batera utzi izanagatik— bere egintzak lehia askeari eraso egin diezaiokeela edo egiten diola.



Hala, Auzitegi Gorenak 2010eko uztailaren 6an ezarri bezala³⁸,

«honako hau ulertu behar da erruduntasunaz: egitez edo ez-egitez egitate tipiko eta antijuridiko bat egin duenari zuzendutako gaitzespenezko iritzi pertsonala; horrek dakar berekin egilea egile, konplize edo estaltzaile izatea jokabide ez-zilegia dakarren egitean edo ez-egitean; egileari egotzi ahal izatea aipatu egitatea, haren jarduteko gaitasuna aldatzen duen inguruabarririk ez dela, eta egile hori errudun izatea, hau da, jakinean eta nahita aritu izana, edo intentziosko moduan, edo erruzko moduan».

52. Elkargoak bere alde dio espedientean ez dela egiaztatua gelditu bera erruduna dela Elkargoaren Estatutueta LDLren kontrako manuak edukitzeagatik. Elkargoaren barne hutsegite bat izan da, edo atzerapen soil bat estatutuak legera egokitzeko orduan.

Egoera horrek ez dio erantzukizunik kentzen, zeren eta, EELren 33.1 artikulua dakarrenez, Elkargoari dagokio bere estatutuak egitea.

Gainera, espedientetik ondorioztatzen da Elkargoa ohartuta zegoela bere jarrera legez kanpoko zela eta ez zuela Estatutueta manurik izan behar ordenamendu juridikoaren kontra; gainera, LDEZk ohartarazia zion manu horiek legez kanpokoak zirela eta borondatezko epe bat ipini zion horiek ezabatzeko. Lehiaren Euskal Kontseiluak zehapen-espedientea abiatua zuela jakin ondoren baino ez zituen hasi elkargoak manuak benetan indargabetzeko izapideak. Elkargoak Estatutuak indarrean den legedira egokitu behar ditu. Estatutueta LDLren aurkako manuak edukitzea, horien legezkotasun-faltaren jakitun, okerrera eramaten ditu elkargoko kideak eta, horregatik, berez da lehiaren arau-haustea. Gainera, kontuan izan behar da Elkargoak gero moldatu egin duela estatutu-manuren bat, jakinik bazirela LDLrenak urratzen zituztenak eta ez ziola haiek moldatzeari ekin.

53. Ordainsari orientagarrien tarifei dagokienez, Elkargoak dio ez dagoela egiaztatua espedientean haren jarrera erruduna, legeak babestuta dagoelakoan.

Ebazpen honetan egiaztatuta gelditu denez, Elkargoaren tarifa orientagarriak onartzea, ezartzea eta aplikatzea ez da inongo lege aplikatzea; hortaz, ondorioztatzen da Elkargoa, tarifa orientagarriak onartuta eta aplikatuta, behintzat kontzientzia eta borondate axolagabez aritu dela. EELren 24. artikulua araberak, Abokatuen Elkargoari dagokio irizpide orientagarriak prestatzea, kostuak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko, beste inori ez.

³⁸ Auzitegi Gorenaren 3821/2010 Epaia, Administrazioarekiko Auzietako Sala, 2010eko uztailaren 6koa. 5570/2007 Kasazio-errekurtsoa. ECLI: ES:TS:2010:3821.



54. Ez hori bakarrik: Elkargoak lehia librearen kontrako asmorik ez izanda ere —hala nola borondatea azaltzen duenean bezala Epaitegiak behar bezala informatzeko zigortutako ordainsarien izaera gehiegizkoa ote den iritzia eskatzen diotenean—, erantzukizuna harena da; izan ere, Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinak dakarren bezala, ez da kontua akordioaren berezko helburua edo intentzioa, baizik eta akordioa, nola edukiz eta nola ondorioz, manu horien kontrakoa dela; hau da, ez da kontua asmo subjektiboa, baizik eta lotu beharra duela ea akordioa edo ekintza lehia librearen kontrakoa ote den, edo, bestela esan, ea objektiboki jo ote daitekeen jokabidea antijuridikoa dela³⁹.

Hori dela eta, tipoaren elementu subjektiboa bi jokabideetan betetzen dela jo beharra dago.

55. Elkargoa erantzukizuna arintzen saiatzen ari da jarrera ona izan duela argudiatuta eta estatutuak zuzenbidera ekarriko dituela adierazita.

Hala ere, instrukzioaldian egiaztatuta gelditu den bezala, Elkargoak ez zion kasurik egin Lehiaren Agintaritzaren ohartarazpen ugariei, eta izapideak zehapen-espeditentea abiatu ondoren abiatu zituen. Espediente hau abiatu zela jakin zuenean hasi da Elkargoa, ez lehenago, bizkortasunez jokatzen Estatutuak indarrean den legedira ekartzeko.

5.- Kalifikazioa

56. LDLko 62. artikulua hiru motatako arau-hauste dakartza sailkatuta: arinak, astunak eta oso astunak. Artikulu horretako 4 zenbakiaren a) letrak oso astuntzat jotzen ditu honako hauek:

Kolusiozko jokaerak aurrera eramatea lege honen 1. artikuluan aurreikusitako moduan, baldin eta jokaera horiek elkarri lehia egiten dioten benetako enpresa edo enpresa potentzialen arteko kartel, akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak, hitzartutako praktikak edo nahita paraleloak badira».

57. Elkargoak bere defentsan esan du ez dagoela arau-hauste oso astuntzat hartzerik ez direlako lehiakideen arteko akordio, erabaki edo gomendio kolektiboak. Ez dago asmo hori aintzat hartzerik, zeren eta aurrez esan bezala lehiaren eskubidea dela-medio elkargo profesionalak eta Arabako Graduatu Sozialen Elkargoa bera elkarte profesionalak dira, eta horien arauak, barne-araudiak eta erabakiak kolektiboak dira LDLren 1. artikuluan jasota dagoen bezala.

³⁹ Auzitegi Gorenaren 3387/2006 Epaia, 2006ko ekainaren 20koa. ECLI: ES:TS:2006:3887.



58. 2009. urtetik ebazpen honen hurbileko egunetara arte elkargoko estatutuetan lehiaren kontrako manuak hor edukitzea eta 2012tik kostuak tasatzeko eta kontuen zina egiteko tarifa minimoak edo orientagarriak onartzea, ezartzea eta aplikatzea, hitzarmen eta gomendio kolektiboak dira, Arabako Graduatu Sozialen Elkargoak prezioen inguruan eginak; LDLren 1.1 artikuluan aurreikusita datoz, eta antijuridikoak eta errudunak dira. Horregatik, arau-hauste bakoitza astuntzat jo behar da, 62.4.a artikulua dioenez. Jarrera horiek inondik inora ere ez dira arinak, Elkargoak eskatzen duen bezala, ez baitira inkardinatzekoak LDLren 62.2 artikuluan datozen suposizioetako batean ere.

6.- Zehapenaren zenbatekoa ezartzea

59. Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 63.1 artikuluan datorrenez, lege honetan xedaturikoa nahita edo utzikeriagatik urratzen duten eragile ekonomiko, enpresa, enpresen elkarte edo batasun nahiz taldeei, zehapen hauek jarriko dizkiete horretarako eskumena duten organoek:

«c) Arau-hauste oso larrien kasuan, araua hautsi duen enpresak isuna jarri zaion ekitaldiaren aurrekoan guztira izan zuen negozio-bolumenaren ehuneko 10era arteko isuna».

Hirugarren paragrafoan datorrenez, gainera, negozioen bolumena zehazterik ez balego, arau-hauste oso astunak zehatzeko, 10 milioi euro baino gehiagoko isuna jarri ahal izango da.

60. LDLko 64.1 artikuluan xedatuta dago isunen zenbatekoa ezarriko dela irizpide hauek kontuan harturik, besteak beste:

- a) Arau-haustea eragiten dion merkatuaren neurria eta ezaugarriak.
- b) Erantzulea den edo diren enpresen merkatu-kuota.
- c) Arau-haustearen zenbaterainokoa.
- d) Arau-haustearen iraupena.
- e) Arau-haustea zer nolako ondorioak izan dituen kontsumitzaile eta erabiltzaileen edo beste operadore ekonomiko batzuen eskubide eta bidezko interesetan.
- f) Arau-haustea dela eta bidegabeki zer nolako onurak eskuratu diren.
- g) Erantzulea den enpresa bakoitzaren kasuan, zer nolako gertakari astungarri edo aringarriak dauden.

61. Elkargoak ez du negozio-bolumenik eta, ondorioz, 63. artikuluan 3. zenbakian xedatutakoa aplikatu ahal izango litzateke; 10 milioi euro baino gehiagoko isuna ezartzen du horrek.



Proporzionaltasun-printzipioak, ordea, zehapena haztatzea exijitzen du, kasuaren inguruabarrak aintzat hartuta⁴⁰.

Gauzak horrela, kontuan izan behar da: Graduatu Sozialen lehia-gaitasuna mugatzen duten manuak zazpi urtean baino gehiagoan izan direla Estatutueta; Elkargoak lehiaren agintariaren txosten bat jaso zuela ohartarazteko ordu arteko jokabidea zigorgarria zela; Elkargoak lehiaren agintaritzari jakinarazi ziola jokabidez aldatzeko borondatea zuela eta hala ere Estatutuak moldatu bazituen ere zuzenbidearen aukakoak ziren manuak bere horretan gelditu zirela; Elkargoari espedientea abiarazi zitzaion arte ez dituela moldatu Estatutuak eta momentu honetan manu horiek dagoeneko ez daudela Estatutueta.

2012ko ekainean Elkargoak ordainsari minimoen tarifak onartu zituen, kostuen tasazioa eta kontuen zina egiteko, eta horren ondorioak 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerakoak dira. Gasteizko Epaitegiei egindako txostenetan, tarifa horiek aplikatzen zituen, nahiz eta zenbait txostenetan dioen ordainsariak zehazteak librea izan behar duela lehiaren araudian datorren bezala. Tarifa horiek indarrean egon dira, eta bost urtean aplikatu dira.

Elkargoak prezio minimoak ezartzea eta horien publizitatea egitea ez dira kostuen tasazioa eta kontuen zina egitekoan bakarrik nabaritu, indarra izan dute edozein graduatuk emandako zerbitzuen prezio minimoak zehazteko.

62. Elkargoak nahitaez biltzen ditu helbide bakarra edo nagusia Araban duten Graduatu Sozial guztietako profesionalak, eta 173 kolegiatu ditu; horietatik % 31k bakarrik dihardute (55ek).

V.- EBAZTEN DU

LEHENA.- Egiatztatutzat jotzea LDLren 1. artikulua urratu dela Estatutueta espresuki jasota izateagatik debekatuta eta lehiaren kontraktatzat diren funtzioak, hala nola ordainsarien baremo orientagarriak eta minimoak ezartzea

⁴⁰ Bai LDLk bai Auzitegi Gorenak isunen kalkulari buruz emandako jurisprudentziak horrelakoak proporzionaltasun-printzipioa zehatz-mehatz errespetatuz hartu beharra eskatzen dute. Auzitegi Gorenaren Epaiak, 2015eko urtarrilaren 29koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 2872/2013 Kasazio Errekurtsua; 2015eko otsailaren 9koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 1531/2013 Kasazio Errekurtsua; 2015eko otsailaren 27koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 498/2014 Kasazio Errekurtsua; 2015eko ekainaren 8koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 1763/2014 Kasazio Errekurtsua; 2015eko ekainaren 22koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 1036/2013 Kasazio Errekurtsua; 2015eko irailaren 28koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 836/2013 Kasazio Errekurtsua; 2015eko irailaren 30koa, Administrazioarekiko Auzietarako Sala, 3. sekzioa, 496/2013 Kasazio Errekurtsua.



(5.n artikulua) eta, horrekin batera, Arabako graduatu sozialen beste elkargo batzuetako kolegiatuen lanbide-jardueran lehia mugatzea (13. artikulua), zerbitzu profesionalen publizitatea mugatzea (15.m eta 72.3.j artikulua) eta beste kolegiatu bati manatutako gaien ezagutzan ordezkapena mugatzea (20. artikulua eta 72.3.l).

BIGARRENA.- Egiatztatutzat ematea beste arau-hauste bat izan dela LDLren 1.1 artikuluan debekatua dagoen jokabide bategatik, debekatua baitute Arabako graduatu sozialetako zerbitzu profesionalak tarifa minimoak edo orientagarriak onartzea, ezartzea eta aplikatzea.

HIRUGARRENA.- Arabako Graduatu Sozialen Elkargoa jotzea arau-hausteen egile eta erantzuletzat, zeinaren helbidea baita Vicente Goikoetxea kaleko 17 behea, Vitoria-Gasteiz (01008).

LAUGARRENA.- 5.500 euroko isuna jartzea Estatutuetan espresuki debekatuta dauden eta lehiaren kontrakoak diren funtzioak edukitzeagatik.

BOSGARRENA.- 13.750 euroko isun bat jartzea tarifa minimoak edo orientagarriak onartu, ezarri eta aplikatzeagatik Araban graduatu sozialetako profesionalen zerbitzuetan.

SEIGARRENA.- Elkargoari agintzea, ebazpen hau hartzen duen unetik, utz diezaiola dokumentu hau erabiltzeari: «Tarifas orientativas de honorarios profesionales de los graduados sociales en ejercicio libre del Excmo. e Ilmo. Colegio Oficial de Álava, a los exclusivos efectos de Tasación de Costas y Jura de Cuentas a partir del 1 de enero de 2012». Elkargoari agintzea jakinaraz diezaiela bere kolegiatu guztiei LDLren 1.2 artikulua dela-eta aipaturiko tarifak —Gobernu Batzarrak onartuak— eskubiderik gabeak direla eta tarifen baremoak izan orientagarriak eta/edo izan minimoak legearen kontrakoak direla baita kostuen tasaziorako eta kontuen zinerako ere.

ZAZPIGARRENA.- Elkargoari agintzea ez dezala berriro izan xede hori edo antzeko bat duten edo eragin bera duten jokabiderik.

ZORTZIGARRENA.- Elkargoari agintzea ebazpen hau elkargoko kide guztiei jaso eta hilabeteko epean helaraz diezaien.



BEDERATZIGARRENA.- Elkargoari agintzea LEAren Ikerketa Zuzendaritzaren aurrean egiaztatu dezan ezarritako isuna ordaindu eta ebazpena osoki bete duela hilabeteko epean, hura gauzatzen denetik hasita.

HAMARGARRENA.- Lehiaren Euskal Agintaritza honetako Ikerketa Zuzendaritzari eskatzea ebazpen hau osorik betetzen dela zaindu dezan.

Jakinaraz bekio ebazpen hau LEAko Ikerketa Zuzendaritzari, eta jakinaraz bekie interesdun guztiei, eta adierazi behar zaie ebazpen honek amaiera ematen diola administrazio-bideari, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.